**Azalpen txostena, Gizarte Politiketako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta dituen desberdintasun nagusiei eta aurrekontuak prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urteotan bizkortu egin du zaintza pertsonalizatuagoak, inklusiboagoak eta komunitarioagoak lortzeko trantsizio-prozesua, Horretarako, Gizarte Politiketako Departamentuaren 2023ko aurrekontuak kreditu-gehikuntza nabarmena izan du 2022ko hasierako aurrekontuarekin alderatuta, eta, horri esker, Gipuzkoa 20 > 30 “Trantsizioko Gizarte Politikak” Agendaren 2023ko Ekintza Plana garatu ahal izango da. Agenda horrek Gipuzkoako gizarte-politika guztietarako arreta- eta zaintza-ereduaren eraldaketa sakona proposatzen du, kontuan hartuta lurraldearen erronka handienetako bat trantsizio demografikoarekin lotuta dagoela.

Gipuzkoa 20 > 30 Agenda gida estrategikoa da hurrengo 10 urteetarako arreta-, zaintza- eta laguntza-ereduaren aldaketa inkrementalerako. Gizarte-zerbitzuen sistema eraldatzeko prozesu hori eraginkor bihurtzeko, 12 trantsizio-ardatzez eta gizarte-politikako 39 jarduketaz osatutako Ekintza Plan bat proposatzen da.

2023ko aurrekontu-ekitaldiko plaza eta zerbitzuetako jarduketa berriei buruzko informazioa emateko, jarraian deskribatzen dira esanguratsuenak, aurrekontu-programen arabera sailkatuta:

Desgaitasuna duten pertsonei arreta emateko 100 programa beste urte batez nabarmendu da, jarduera ugari eta askotarikoak aurreikusten direlako. Horregatik, haren zuzkiduran beharrezko kredituak sartzen dira. 2023an indartutako jardueren artean, honako hauek daude:

• Plazak gehitzea eta zerbitzu-egunak luzatzea. Gastu horrek barne hartzen du 2022an sortutako plazen gastua urtekotzeko aurreikusitakoa, 2023ko ekitaldian sortu beharreko plaza berriena, eta eraldatzen diren egungo plazen gastua, eguneko arretako baliabideetan zerbitzu-egunen kopurua handituz.

• Arreta goiztiarra behar duten lurraldeko haurrei. Partida horien zuzkidura nabarmen handituko da pertsona gehiagorengana iristeko, eta, gainera, zerbitzua arautzeko foru-dekretu berri bat onartuko da.

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Políticas Sociales respecto al vigente y criterios adoptados en su elaboración.**

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha acelerado en los últimos años el proceso de transición hacia unos cuidados más personalizados, inclusivos y comunitarios. Para ello, el presupuesto del Departamento de Políticas Sociales para 2023 cuenta con un significativo incremento de créditos respecto al presupuesto inicial de 2022 que permitirán desarrollar el Plan de Acción 2023 de la Agenda Gipuzkoa 20 > 30 “Políticas Sociales de Transición”. Dicha Agenda propone una transformación profunda del modelo de atención y cuidados para el conjunto de las políticas sociales. de Gipuzkoa, tomando en cuenta que uno de los mayores desafíos del Territorio está relacionado con la transición demográfica.

La Agenda Gipuzkoa 20 > 30 es una guía estratégica para el cambio incremental del modelo de atención, cuidados y apoyos para los próximos 10 años. Para hacer operativo este proceso de transformación del sistema de servicios sociales, se propone un Plan de Acción integrado por 12 ejes de transición y 39 actuaciones de política social.

Para facilitar la información referida a las nuevas actuaciones en plazas y servicios del ejercicio presupuestario 2023, se describen a continuación las más significativas clasificadas de acuerdo con sus programas presupuestarios:

El programa 100 de Atención a personas con discapacidad destaca otro año más, por la gran cantidad y variedad de actuaciones previstas. Por ello, en su dotación se incluyen los créditos necesarios. Entre las actividades reforzadas en 2023 se encuentran:

- Incremento de plazas y ampliación de días de servicio. Este gasto incluye el previsto tanto para anualizar el gasto de las plazas creadas en 2022, el de las nuevas plazas a crear durante el ejercicio 2023, y el de plazas existentes que se transforman, ampliando el número de días de servicio en los recursos de atención diurna.

- Atención temprana a niños y niñas del territorio que la precisen. Estas partidas reciben un significativo incremento de dotación para llegar a más personas y que además vendrá acompañada de la aprobación de un nuevo decreto foral para la regulación del servicio,

• Etxetek, laguntza-produktuen foru-zerbitzua. Zerbitzu horrek aukera ematen du laguntza-produktuak lagatzeko eta laguntza ekonomikoak emateko desgaitasuna duten eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsona askori, haien bizi-kalitatea handitzeko eta beren gizarte- eta familia-ingurunean jarraitzeko, eta, hartara, erakundetzea atzeratzeko. Zerbitzu hori beste lizitazio baten xede izango da, helburu bikoitzarekin: pertsona gehiagorengana iristea eta emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzea.

• Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonen balioespenari laguntzeko baliabideak indartzea

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoei arreta emateko 110 programari dagokionez, 2023ko ekitaldian plaza berriak sortzearen aldeko apustuak jarraitzen du, hainbat zerbitzu eskuratzeko itxarote-denbora murrizteko eta pandemiaren aurretik lurraldeak zituen estaldura-tasak berreskuratzeko. Bere aurrekontuan, hainbat plaza sortuko dira egoitza-zentroetan, unitate psikogeriatrikoetan eta adinekoentzako eguneko zentroetan.

Nabarmentzekoa da pertsonak ardatz dituen arreta-eredu berrira egokitutako eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren funtsekin finantzatutako zentro eraiki berrietan plazak ituntzea. Horien artean daude Matia Fundazioak Usurbilen eta Lugaritzen dituen zentroak eta Zorroaga Fundazioak Donostian dituen tutoretzapeko apartamentuak. Era berean, 2023an Irungo Arbes inguruan egoitza-zentro berri bat eraikitzen hastea espero da, laster esleituko den administrazio-emakida baten bidez.

Aldizkako prestazio ekonomikoen 220 Programan nabarmendu behar da zuzkidura handitu dela 2023an mantentzeko aurreikusten den Kotizazio Gabeko Prestaziorako (KGP) 2022rako behin behineko eran ezarritako % 15eko igoera. Prestazio batzuen zenbatekoak berrikusteko behar den finantzaketa ere aurreikusita dago.

Gizarte inklusioko eta Indarkeria matxistaren emakume biktimen arretako 300 Programan, berritasuna da, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko 24 orduko zentro berri baterako lokal bat erosteko eta egokitzeko. kredituak hornitzea Ekitaldian zehar sartuko da lokal hori zerbitzuan. Jarduera hori Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko dirulaguntza batetik datozen funtsekin finantzatuko da.

• Etxetek, Servicio foral de productos de apoyo. Este servicio, que posibilita mediante la cesión de productos de apoyo y la concesión de ayudas económicas que muchas personas con discapacidad y/o en situación de dependencia, aumenten su calidad de vida, y permanezcan en su entorno social y familiar, retrasando su institucionalización, será objeto de una nueva licitación, con el doble objetivo de llegar a más personas y mejorar la calidad del servicio prestado

• Refuerzo de los recursos de apoyo a la valoración de personas solicitantes de discapacidad y/o dependencia

En cuanto al programa 110 de Atención a personas mayores en situación de dependencia, en el ejercicio 2023 continúa la apuesta por la creación de nuevas plazas para reducir el tiempo de espera existente para el acceso a diversos servicios y recuperar las tasas de cobertura de las que el territorio disponía antes de la pandemia. Su presupuesto incluye la creación de distintas plazas en centros residenciales, unidades psicogeriátricas y centros de día para personas mayores.

Destaca la concertación de plazas en centros de nueva construcción adaptados al nuevo modelo de atención centrada en la persona y financiados con fondos del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. Entre ellos se encuentran los centros de Fundación Matia en Usurbil y Lugaritz y los apartamentos tutelados de la Fundación Zorroaga en Donostia. Asimismo se espera que 2023 sea el año de inicio de la construcción de un nuevo centro residencial en la zona Arbes de Irún mediante una concesión administrativa de próxima adjudicación.

En el Programa 220, de Prestaciones económicas periódicas se debe resaltar el incremento de dotación para atender la subida del 15% decretada para la Prestación No Contributiva (PNC) que, establecida como temporal durante 2022, se prevé mantener durante 2023. También está prevista la financiación necesaria para la revisión de los importes de algunas prestaciones.

En el Programa 300, de Protección a la mujer víctima de la violencia machista y de inclusión social, es novedad la dotación en el presupuesto 2023 de los créditos necesarios, que han sido financiados con fondos provenientes de una subvención del Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia para la compra y adecuación de un local destinado a un nuevo centro 24 horas de atención a mujeres víctimas de la violencia machista y cuya entrada en servicio se

producirá también a lo largo del ejercicio.

Nabarmentzekoa da, halaber, Desgaitasuna duten Pertsonentzako 100. Arreta Programarekin partekatutako baliabide berri bat abian jartzeko behar diren kredituak sartu izana. Arreta espezializatuko zerbitzu bat da, egoera konplexuak dituzten pertsonei laguntza eta zaintza integratuak emateko zentro batean ematen dena, hau da, askotariko kontingentziak dituena, bazterketa-, mendetasun-, desgaitasun-, gaixotasun mentaleko eta kontsumoetako egoeren presentzia aldakorra dutenak eta iraupen laburreko, ertaineko edo luzeko zaintza pertsonalak behar dituztenak.

También destaca la inclusión de los créditos necesarios para la puesta en marcha de un nuevo recurso compartido con el Programa 100 de Atención a personas con discapacidad Se trata de un servicio de atención especializada en un centro de atención de apoyos y cuidados integrados a personas con situaciones complejas, esto es multicontingencia con presencia variable de situaciones de exclusión, dependencia, discapacidad, enfermedad mental y consumos, que requieren cuidados de carácter personal de corta, media o larga duración

Gainera, 2022an Bidasoaldean eta Donostialdean izandako esperientzia positiboaren ondoren, 2023an beste eskualde batzuetara zabalduko da Bazterketa-egoeran dauden Pertsonei Eskualdeko Laguntza Emateko Foru Zerbitzua (ELEZ).

Además. tras la positiva experiencia en 2022 en Bidasoaldea y Donostialdea durante 2023 se ampliará a otras comarcas el Servicio Foral de Apoyo Comarcal para personas en exclusión (SEFAC).

Egoitza-arretari dagokionez, hainbat baliabidetan plaza berriak hitzartzeko behar diren kredituak sartu dira, eskualde-estaldura hobetuz, eta foru-sareko plazak pixkanaka egokitzen jarraitu da, lehen mailako arretaren pareko profiletik bazterketa-egoeran dauden edo hala egoteko arriskuan dauden pertsonentzako arreta espezializatuko profil batera igaroz.

En cuanto a la atención residencial, se incluyen los créditos necesarios para concertar nuevas plazas en diversos recursos, mejorando la cobertura comarcal y se continúa con la adaptación paulatina de las plazas de la red foral pasando de un perfil asimilable a la atención primaria a uno de atención especializada para personas en exclusión o en riesgo de estarlo.

Haurrak eta nerabeak babesteko 310 programan, nabarmentzekoa da pertsona horientzako arreta hobetzeko eta zabaltzeko urte arteko zuzkidurak nabarmen egin duela gora 2022arekin alderatuta.

En el programa 310 de Protección a la infancia y adolescencia destaca un significativo incremento de dotación interanual respecto a 2022 dedicados a mejorar y ampliar la atención a estas personas.

Nobedadeen artean, Ukrainatik datozen akonpainamendurik gabeko haurrei emango zaien arreta aipatu behar da, haientzat familia-harrera lehenetsiko baita. Behar diren kredituak sartu dira, bai harrera mota horri laguntzak emateko, bai egoera horretan Gipuzkoara iristen den adingabe bakoitzaren diagnostikoa eta jarraipena egiteko behar diren langileak eta zerbitzuak indartzeko.

Entre las novedades, cabe mencionar la atención que se va a prestar a niños y niñas sin acompañamiento procedentes de Ucrania, para quienes se priorizará el acogimiento familiar. Se han incluido los créditos necesarios tanto para conceder ayudas a este tipo de acogimiento como para el refuerzo del personal y los servicios necesarios para proceder al diagnóstico y seguimiento de cada persona menor que llegue a Gipuzkoa en esta situación.

Azkenik, 2023an beste egoitza-baliabide espezializatu bat martxan jartzea aurreikusten da, nahasmendu mental larriari lotutako zailtasun handiak dituzten nerabeentzat. Ekipamendu hori Osasun Mentaleko Atalarekin batera zehaztuko da, eta 2023an jarriko da martxan, 10 plazarekin.

Finalmente, durante 2023 está prevista la puesta en servicio de otro recurso residencial especializado para adolescentes con grandes dificultades asociadas a trastorno mental grave. Este equipamiento, definido conjuntamente con la Sección de Salud Mental, se pondrá en marcha en 2023 con 10 plazas

Foru Erakunde Publikoen Kudeaketari buruzko

En cuanto al programa 400 de Gestión de

400 Programari dagokionez, nabarmendu behar da GFAk udal-titulartasuneko adineko pertsonentzako egoitza guztien kudeaketa bere gain hartu ondoren, 2023koa izango dela Kabia Foru Erakunde Autonomoak (zentro horien kudeaketa esleitzen zaio) zentro guztiak finantzatzeko aurrekontu osoa duen bigarren ekitaldia.

Organismos Públicos Forales destacar que una vez completada la asunción por la DFG de la gestión de todas las residencias para personas mayores dependientes de titularidad municipal, el de 2023 será, el segundo ejercicio en que el Organismo Autónomo Foral Kabia, (al que se encomienda la gestión de dichos centros), cuenta con un presupuesto completo para la financiación de todos los centros.

2023ko, berritasun gisa, aipatzekoa da, zenbait zentrotako instalazio eta altzari geriatrikoak berritzeko eta hobetzeko obrak egingo direla, Kabia eredura egokituz.

Como novedad de 2023 es destacable que se acometerán obras de renovación y mejora de las instalaciones y del mobiliario geriátrico de varios de los centros adaptándolos al modelo Kabia.

Inbertsioak eraldatzeari eta egokitzeari dagokionez, nabarmendu behar da pandemiaren garai okerrenetan zerbait agerian geratu bada, zentroen ereduaren eraldaketa bizkortu beharra dagoela, egoitza-unitateen tamaina txikiagoa lehenetsiz, EAEko araudi berriak ezartzen duen banako gela bihurtzea eta pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua ezartzea.

En materia de transformación y adecuación de inversiones destacar que, si algo se ha puesto de manifiesto durante las peores épocas de la pandemia, es la necesidad de acelerar la transformación del modelo de centros, priorizando un menor tamaño de las unidades residenciales, la conversión a habitaciones individuales que establece la nueva regulación vasca y la implantación del modelo de atención centrado en la persona.

Duela zenbait ekitalditatik, Gizarte politiketako Departamentuak, 210 aurrekontu-programaren bidez, zentroetan inbertsioa sustatu du, lurralde osoaren premiei erantzungo dien ekipamendu-sare bat sustatzeko modu gisa. Sare horrek eskualde-banaketa egokia izango du, eta lehendik dauden zentroetan kalitate-estandar zorrotzak mantenduko direla bermatuko du, bai bere zentroetan inbertsioak eginez, bai itundutako erakundeentzako diru-laguntzen planak bultzatuz. 2021etik aurrera, halaber, Plangintza eta informazio sistemen 200 programaren bidez gizarte-zerbitzuetako berrikuntzaren, ikerketaren eta garapenaren arloko zenbait diru-laguntzen deialdia bultzatu da.

Desde hace varios ejercicios el Departamento de Políticas Sociales, a través del Programa presupuestario 210, ha venido fomentando la inversión en centros de servicios sociales como forma de impulsar la existencia de una red de equipamientos que respondiese a las necesidades del conjunto del territorio, con una adecuada distribución comarcal y que asegurase el mantenimiento de unos exigentes estándares de calidad en los centros ya existentes, tanto a través de la inversión en sus propios centros como impulsado planes de ayudas económicas para los de las entidades concertadas. También desde 2021, a través del Programa 200 de Planificación y sistemas de información, se ha impulsado la convocatoria de varias líneas de subvenciones en materia de innovación y de investigación y desarrollo en servicios sociales

Jardun-ildo hori egokia dela frogatu da, eta horri esker, dirulaguntza eta inbertsio horiek Europako funtsekin finantzatzeko proiektu hautagarrien artean txertatu ahal izan dira. Horrela, eraldaketa-prozesu horretan irmo aurrera egiten jarraitzeko, 2023an aparteko laguntza izango da, beste 12,2 milioi euro (2022an eta 2021ean jasotako zenbatekoen gehigarriak), Europako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko Next Generation funtsetatik datozenak. (Gizarte Politika Departamentuaren 2023ko aurrekontua barne), eta jarduketa hauetara

Esta línea de actuación se ha demostrado idónea y gracias a ella, se han podido incardinar estas subvenciones e inversiones entre los proyectos elegibles para su financiación con los fondos europeos. Así para seguir avanzando decididamente en este proceso de transformación, en 2023 se contará con la extraordinaria ayuda que suponen otros 12,2 millones de euros, (adicionales a los importes ya recibidos en 2022 y en 2021) provenientes de los fondos europeos Next Generation del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. que se incluyen el

bideratzen direnak

- Gipuzkoako zentroak egokitzeko inbertsiorako laguntzetan.

- Zentro propioak egokitzea, hala nola Lasarteko Atsobakar Egoitza edo Txara 1eko Egoitza Arreta Espezializatuko Zentroa.

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonei eta desgaitasuna duten pertsonei arreta emateko hiru foru-zentro berritzaileetarako.

- Berrikuntza-laguntzak, zerbitzu-kontratuak, aplikazio informatikoak, etab., Gipuzkoa, 2030 Zaintza lurraldea Estrategiaren esparruan

COVID 19

2023ko aurrekontua egokitu egin da, eta desagertu egin dira oraindik ere izenetan COVID19 kontzeptua sartzen zuten partida gutxi batzuk. Hala ere, eta gizarteko beste esparru batzuekin alderatuta, egoitza-zentroetan eutsi egin zaie prebentzio-neurriei, haietan artatutako pertsonen kalteberatasuna dela eta. Hori dela eta, 2023an, aurreko urteetan abian jarritako jarduketa hauek finantzatzen jarraituko da, behar diren kredituekin eta birusaren mehatxua erabat desagertu arte:

• Egoitzetarako eta eguneko zentroetarako COVID19 eremu espezifikoetan egiten den gastua. Eremu horiek erabilgarritasun osoa izango dute.

• Mendekotasun-egoeran dauden adineko-entzako, desgaitasuna duten pertsonentzako eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonentzako isolamendu-eremuen gastua.

• Edukieren mugek ezartzen dituzten eskakizunen ondorioz bete ezin diren plazen gastua.

• Zentroak material sanitarioz eta norbera babesteko ekipamenduz hornitu, horiek biltegiratu eta banatzeko zuzkidura

presupuesto 2023 del Departamento de Políticas Sociales y que se destinan a estas actuaciones:

- Ayudas a la inversión para la adaptación de centros de Gipuzkoa

- Adaptación de centros propios como la Residencia Atsobakar de Lasarte o el Centro de Atención Residencial Especializada de Txara 1

- Centros innovadores en materias como la atención a mujeres víctimas de la violencia machista, a personas en exclusión social y a personas con discapacidad

- Ayudas de innovación, contratos de servicios, aplicaciones informáticas, etc. en el marco de la Estrategia Gipuzkoa, territorio de cuidados 2030

COVID 19

El presupuesto 2023 se adapta haciendo desaparecer las pocas partidas que seguían incluyendo en su denominación el concepto COVID19. Sin embargo y en contraste con otros ámbitos de la sociedad, se mantienen las medidas de prevención en los centros residenciales debido a la vulnerabilidad de las personas atendidas en ellos, por lo que en 2023 se seguirán financiando, con los créditos que sean necesarios y hasta que no desaparezca completamente la amenaza que supone el virus, las siguientes actuaciones puestas en marcha en años anteriores:

• Gasto de las zonas específicas COVID19 en residencias y centros de día. que se caracterizarán por su total disponibilidad,

• Gasto de zonas de aislamiento para personas mayores dependientes, personas con discapacidad y personas en riesgo de exclusión social.

• Gasto de las plazas que no pueden ser ocupadas por las exigencias que imponen las limitaciones de aforos.

• Dotación para el suministro, almacenaje y distribución de material sanitario y equipos de protección individual (E.P.I.s) a centros.

08 Departamentua GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA/
Departamento 08 DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak<br>Programas | LANGILEAREN GASTUAK<br>1<br>GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO<br>2<br>GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK<br>3<br>GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK<br>4<br>TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK<br>5<br>CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK<br>6<br>INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER.<br>7<br>TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK<br>8<br>ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK<br>9<br>PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA<br>TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Gizarte Politikako Zerbitzu Orokorrak/<br>Servicios Generales de Políticas Sociales | 2.372,71 | 1.047,72 | | 1.396,35 | | 44,50 | | | | 4.861,28 |
| 10. Desgaituen laguntza/<br>Atención a personas con discapacidad | 2.632,21 | 8.499,85 | | 55.794,97 | | 420,73 | 1.605,00 | | | 68.952,76 |
| 11. Adinekoen laguntza/<br>Atención a personas mayores | 1.158,50 | 29.059,83 | | 89.280,37 | | | | | | 119.498,70 |
| 20. Plangintza eta informazio sistemak/<br>Planificación y sistemas de información | 1.219,44 | 1.002,39 | | 1.651,18 | | 2.589,82 | 20,00 | | | 6.482,83 |
| 21. Gizarte zerbitzuen zentroetako inbertsioen plana/<br>Plan de inversiones en centros de servicios sociales | 1.122,49 | 545,77 | | | | 9.650,57 | 12.444,00 | | | 23.762,84 |
| 22. Aldizkako prestazio ekonomikoak/<br>Prestaciones económicas periódicas | 1.505,19 | | | 89.172,21 | | | | | | 90.677,40 |
| 30. Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emak<br>Inclusión Social y Atención a Mujeres Víctimas de | 1.587,36 | 4.330,28 | | 34.498,71 | | 702,05 | | | | 41.118,40 |
| 31. Haur eta nerabeen babesa/<br>Protección a la infancia y la adolescencia | 2.505,24 | 36.738,49 | | 18.661,54 | | | | | | 57.905,27 |
| 40. Foru Erakunde Publikoak Kudeaketa/<br>Gestión de Organismos Públicos Forales | 4.321,22 | 6.244,08 | | 65.200,85 | | | 6.175,16 | | | 81.941,31 |
| **Departamentua Guztira<br>Total Departamento** | **18.424,36** | **87.468,41** | | **355.656,19** | | **13.407,67** | **20.244,16** | | | **495.200,78** |

